

2019/04/01ean EGINDAKO EZOHICO OSOKO
BILKURA.

SESIÓN EXTRAORDINARIA DEL
PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día
01/04/2018.

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Josu Ezkurdia Santamaría

Zinegotziak

Maria Purificación Regidor Varela
Maite Zubia Atxaga
Maite Uribe Beristain
Aitor Zubizarreta Alegria
Aintzane Agiriano Errasti
Edorta Barandiaran Garcia
Maider Otamendi Tolosa
Joseba Iñaki Kerejeta Gorostiza
Rafael Bernal Gato

Idazkaria

Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, 2019ko apirilaren 1a, arratsaldeko bostak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkura aretoan, José Ramón Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udaltzarrak, ezohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiak buruz hitz egiteko. Ez da etorri Jose Ramon Zubizarreta Alegria.

En Eskoriatza, siendo las 17:30 horas del día 1 de abril de 2019, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión extraordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde-Presidente José Ramón Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asiste José Ramón Zubizarreta Alegria.

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAA48KWL.tTTt>

1.- ESKOLA AGENDA 21: 2018/2019 IKASTURTEKO PROPOSAMENAK

Udalburuak, Josu Ezkurdiak, ongi etorria eman die bertaratutako guztiei, bereziki, Eskoriatzako ikastetxeetako ikasleei.

Hitza eman ondoren, Eskoriatzako ikastetxeetako ikasleen ordezkariak 2018/2019 ikasturte honetan Eskola Agenda 21aren barruan BASERRI KULTURARI buruz Udalbatzarrari egiten dioten proposamena aurkeztu diote Udalbatzarrari.

Proposamen hori akta honen eranskin gisa doa.

Aurkezpen guztiak amaituta, Udalburuak proiektuan parte hartu duten guztiak zoriondu ditu egin duten lan hain interesgarriarengatik. Adierazi du egingarriak diren heinean proposamen guztiak jarriko direla martxan, eta argitu du horietako batzuk dagoeneko martxan diren arren, beste asko gelditzen direla egiteko, eta horietatik, lehen sektoreaz ari garenez, batzuk Eusko Jaurlaritzaren edo Aldundiaren eskumenak direla.

Gogorarazten jarraitu du Euskal Herriak eskertzeko asko duela lehen sektoreari, paisaiaren edertasunaren zati handi bat berari esker delako.

Amaitzeko esan du interes handikotzat jotzen dituen eta lehen sektorearekin zuzenean lotuta dauden hiru gairi buruz informatu nahi duela: lehenengoa, duela urtebete ireki zela Eskoriatzan ustiaketa berri bat Idiazabal jatorri-izendapeneko gazta ekoizteko; bigarrena, Almen Ikastolak Eskoriatzan urtero antolatzen duen Ferixia; eta hirugarrena, Arantzazuko Artzain Eskolako XXI. ikasturte amaieran Eskoriatzako Udalak jaso zuen saria artzantzari, eta ondorioz, baita lehen sektoreari ere, emandako laguntzarengatik (diploma erakutsi du).

Eta beste gairik ez dagoenez, amaitutzat eman da bilkura 17:45ean. Eta nik, idazkariak, egiaztatzen dut.

1.- AGENDA ESCOLAR 21: PROPUESTAS DEL CURSO ESCOLAR 2018/2019.

El Presidente, Josu Ezkurdia, da la bienvenida a todos los presentes, en especial a los alumnos/as de los centros escolares de Eskoriatza.

Concedida la palabra, representantes de los alumnos/as presentan al Pleno la propuesta que en este curso escolar 2018/2019 hacen a la corporación en el marco del programa Agenda Escolar 21 y que versa sobre "BASERRI KULTURA".

Dicha propuesta se une como Anexo a la presente acta.

Terminadas todas las presentaciones, el Presidente felicita a todos los participantes en el proyecto por el trabajo tan interesante que han realizado. Manifiesta que en la medida que sean factibles se pondrán en marcha las propuestas; si bien algunas, matiza, ya se están llevando a cabo quedan por hacer bastantes, y, de entre ellas, por tratarse del sector primario algunas entran dentro de las competencias del Gobierno Vasco o de la Diputación.

Sigue recordando que Euskal Herria tiene mucho que agradecer al sector primario, porque gran parte de la belleza de su paisaje es gracias a él.

Termina su intervención diciendo que quiere informar sobre tres cuestiones que considera de gran interés y que están relacionadas directamente con el sector primario: la primera, que hace un año se abrió en Eskoriatza una explotación nueva para la producción de queso de denominación Idiazabal; la segunda, la Ferixa que anualmente organiza en Eskoriatza Almen Ikastola y la tercera, el premio que recibió el Ayuntamiento de Eskoriatza con motivo de la clausura del XXI curso de Artzain Eskola de Arantzazu por el apoyo prestado al pastoreo y, en consecuencia, también al sector primario (muestra el diploma)

Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 17:45 horas. De todo lo cual como Secretaria doy fe.

ERANSKINA- ANEXO

Aurten, Eskola Agenda 21 programaren baitan, Eskoriatzako ikastetxeetako ikasleok, Baserri Kultura landu dugu. Azaroan hasi eta otsailera arte gai honen inguruko aspektu ezberdinak lantzen ibili gara. Egindako lana eta azterketa horretako ondorioak erakustera gatoz, baita ikusitakoa hobetzeko zenbait proposamen egitera ere. Hona hemen mailaz maila egindakoa.

2. mailako ikasleok gure herrian ospatzen diren jaien jatorria zein den aztertu dugu. Azterketa egin eta gero atera ditugun ondorioak hauek dira:

- ⑩ Baserri kultura dago udaletxeak antolatzen dituen jaien jatorrian, Atxorrotx egunean izan ezik. Baina jende gehienak ez daki.

Udalari proposatu nahi dioguna, hauxe da:

- ⑩ Festen programazioan, festaren jatorria jartzea.
- ⑩ Museoa erakusketa bat antolatu jaiak nondik datozen jakiteko, baita bideo bat (youtuberren jartzeko), liburuxka eta poster bat egitea.

4. mailako ikasleak bertako haziak duten garrantzia ikusita, hazi ezkutuen bila joan ginen. Hiru baserri bisitatu genituen eta esan ziguten, oso garrantzitsua dela bertako haziak, ematen duten fruitua ezagutzen duzulako, landarea hobetzen doalako eta galduz gero, gure landareak ere galduko lirakeelako. Baina nahiz eta oso garrantzitsuak izan, oso hazi gutxi gordetzen da eta gehienak galdu egin dira.

Egoera hau hobetzeko ondokoa eskatu nahi dizuegu:

- ⑩ Eskoriatzako baserritarrei hemengo haziak salgai jartzeko eskatzea.
- ⑩ Euskal-Herriko haziak salgai ipini, urtean 2 aldiz.
- ⑩ Ortuak sortu alokatzeko. Horretarako, hemengo haziak ereitea izango da baldintzetako bat.

6. mailakook herriko lan sektoreak aztertu ditugu. Herrigunea bisitatu genuen bertan ikusten genuena apuntatuz. Jende askok lan egiten duen industrialdeak ikusi genituen, baita komertzio

eta zerbitzuak ere. Baina ez genuen lehen sektoreko ustiapenik ikusi (nahiz eta jakin Eskoriatzan gutxi batzuk badaudela). Museoan, herriko diruaren banaketarekin konparatu genuen eta bat zetoze ikusi genuen, diruaren %64,4a 2. sektoreak sortzen du, %34,9a hirugarrenak eta %0,7a bakarrik lehen sektoreak. Desoreka handia dago.

Egoera hobetzeko udalari egin nahi dizkiogun proposamenak hauek dira:

- ⑩ Ikastaroak antolatu nekazaritza bultzatzeko eta ezagutzeko, eta gustatzen zaionari terreno bat eman.
- ⑩ Baratze komunitarioak zabaldu.
- ⑩ Bertako produktuen azoka bat egin.
- ⑩ Diru laguntza eman lehen sektoreko abeltzainei.
- ⑩ Arrasaten dagoen "Erein da Jan" moduko denda bat zabaldu bertakoen produktuekin.

DBH 1. mailako ikasleok paisaia eta sasibisitak landu ditugu. Konturatu ginen, gure paisaia baserriari esker dela horrelakoa neurri handi batean. Inguruko zelaiak, baso landaketak... etab. Baserritarrek sortutakoak eta mantendutakoak dira. Elizateak eta herrigunea lotzeko, herri bideak zeuden lehen. Bide hauek publikoak ziren eta urtean behin sasibisita izaten zuten, hau da, udaletxeko jendeak bidea bisitatzen zuen eta egoera kaskarrean egoten bazen, auzolana deitzen zuten hura konpontzeko. Gu Apotzagara joan ginen lehengo herri bidetik.

Ikusitakoa eta gero, proposamen hauek egiten ditugu:

- ⑩ Antzina erabiltzen zen Apotzagako bidea, sasiak garbitu, konpondu eta ondo seinaleztatu.
- ⑩ Landare inbasoreak sustraietatik kendu.
- ⑩ Herri bideen inbentarioa egin.

DBH 2. mailako ikasleok baserriak nola aldatu diren azertu dugu. Baserriak gure etxebizitza eta lantoki izan dira, eta beharren arabera arkitektonikoki ere aldaketak jasan dituzte. Baserriak,

gure garai bateko bizimodua adierazten dute, baita urteetan zehar pilatutako jakintza ere. Beraz, ondare garrantzitsutzat har ditzakegu.

Hau dela eta Eskoriatzako udalari hau proposatu nahi diogu:

- Baserritarrei diru laguntzak ematea
- Baserrietara bisitak antolatzea
- Baserriak hobetzeko laguntzak eman
- Baserrietara joateko bideak hobetu.
- Baserri zaharrak eta tradizionalak babestu.

Amaitzeko, DBH 3. mailakoek, gaur egun baserri lanetatik bizimodua ateratzen duten bi pertsona bisitatu ditugu. Bi pertsona hauek (nekazari bat eta artzain bat) baserritarrei buruz

genituen aurreiritziak apurtu dizkigute eta baserri mundutik bizitzea ogibidetzat aukera daitekeela erakutsi digute. Beraiekin hizketan egon eta gero, hauek dira udalari egın nahi dizkiogun eskaerak:

- ⑩ Iragarki antzeko bat egitea, baserri mundura jendea erakartzeko lan egitera, lurrak errazago lortzeko eta baserri kultura eta nekazaritza gehiago ezagutzeko.
- ⑩ Udaletxearen partetik diru laguntzak ematea, horrelako negozio bat jarri nahi dutenentzat.
- ⑩ Hasi berria den pertsonen erraztasunak ematea paperak etab. egiterako orduan.

Mila esker guztiarengatik,